

Banka eta Aurrezkia

Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Banka eta Aurrezkia

HIZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

| | |
|-----------------------|---|
| Argitaraldia: | I.a, 2019ko abendua |
| Ale-kopurua: | I.500 ale |
| © argitaraldi honena: | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra |
| Argitaratzailea: | Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz |
| Internet: | www.euskadi.eus/euskalterm |
| Azala: | Concetta Probanza |
| Inprimaketa: | C.G. Ganboa, S.L. |
| ISBN: | 978-84-457-3480-3 |
| Lege gordailua: | SS 1290-2019 |

HITZAURREA

Beste edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan www.euskadi.eus/euskalterm dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planeari jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a

MIREN DOBARAN URRUTIA

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehentasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua/gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

fr français

en English

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Aitziber Olaso (Ekonomia irakaslea, EHU)

Iker Etxebeste (UZEI)

Koordinatzailea: **Ander Gartzia** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Miren Dobaran Urrutia, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Garbiñe Doval Garcia, IVAPEko Euskara zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Josune Zabala Alberdi, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

Gotzon Lobera Revilla, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVAPEko ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Naroa Gorostiaga Barriola, aditua

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

Pascual Rekalde Irigoien, aditua

UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Jose Agustin Arrieta. KUTXA

Joserra Bilbao Otaola. BBK

Xabier Bosch Urdanibia. Euskadiko Kutxa

EREMU-ZUHAITZA



- 1 Ezarpenak**
- 2 Finantzaketa**
- 3 Inbertsioa**
- 4 Orokorra**

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka

1. EZARPENAK..... 14
2. FINANTZAKETA 23
3. INBERTSIOA..... 34
4. OROKORRA 50

Euskarazko aurkibidea 61

Gaztelaniazko aurkibidea 69

Frantsesezko aurkibidea 77

Ingelesezko aurkibidea 85

Erreferentzia bibliografikoak 93

BOKABULARIOA SAILKA

I. EZARPENAK

1

abonatu (4)

Kontu baten hartzeko aldean idazpena egin.

es abonar; acreditar

fr créditer; porter au crédit; inscrire au crédit

en credit

2

abonu (4)

Sin. kreditu (4)

Kontu baten hartzeko aldean egindako idazpena.

es abono; crédito

fr crédit

en credit

3

abonu-agiri (4)

Kontu korronte batean dirua sartzen denean kreditu-erakundeak diru-sarrera egin duenari ematen dion agiria.

es abonaré

fr avis de crédit

en credit note

4

abonu-data (4)

es fecha de abono

fr date de crédit

en date of credit

5

abonu-kontu (4)

es cuenta de abono

fr compte à créditer

en recipient account; account to be credited

6

ageriko aurrezki-kontu (4)

Berehalako erabilgarritasuna duen kontu-mota. Hasierako ezarpena egiterakoan, kreditu-erakundeak kontuaren titular edo titularrei jabetzaren titulu izenduna eta transferiezina den libreta bat ematen die, eta, bertan, ordaindutako zein zordundutako zenbatekoen oharpenak jasotzen dira.

es cuenta de ahorro a la vista

fr compte épargne à vue

en sight savings account

7

ageriko kontu korronte (4)

Diruaren gordailu irregularreko kontu-mota. Txeke bidez edo kontu korrontean ordainduko bidez du erabilgarritasuna, eta kudeaketa-zerbitzu bat ere eskaintzen du. Gordailugileak zuzenean edo behar bezala baimendutako hirugarren baten bitartez atera eta sar ditzake funtsak, inolako aurretiko abisu edo atzerapenik gabe. Unean edo oso epe laburrean erabilgarriak izatea da kontu-mota honen ezaugarri nagusia; gainera, transferentzia- eta igorpen-eragiketen bidez horrelako kontuetan edozein diru-fluxu bideratzeko aukera dago.

es cuenta corriente a la vista

8

agindu-emaile (4)

Transferentzia bat egiteko agindua ematen duena.

es ordenante

fr donneur d'ordre

en originator

9

agindurako txeke (4)

Txeke izendun endosagarria, hau da, titularrak beste pertsona bati transmiti diezaiokeena dokumentuan bertan adierazpen idatzi bat gehituta.

- es cheque a la orden
- fr chèque à ordre
- en order cheque

10

amaierako saldo (4)

- es saldo final
- fr solde final
- en final balance

11

aurreikuspen-plan aseguru (4)

- es plan de previsión asegurado
- fr plan de prévoyance assuré
- en guaranteed prevision plan

12

aurrezki (4)

Kontsumitzen ez den errenta-zatia, etorkizuneko beharrak asetzeko gordetzen dena.

- es ahorro
- fr épargne
- en savings

13

aurrezki-libreta (4)

- es cartilla de ahorro; libreta de ahorro
- fr livret d'épargne
- en savings book; savings passbook

14

aurreztaile (4)

- es ahorrador
- fr épargnant
- en saver

15

balio-data (4)

Kreditu-erakundeak diru-kopuru bat bezeroaren kontuan abonatzen edo zorduntzen duen eguna.

- es fecha valor; fecha de valor
- fr date de valeur; jour de valeur
- en value date

16

Banku Berregituraketa Ordenaturako Funtza (4)

9/2009 Errege Lege Dekretuaren bidez banku-egitura berregiteko eta kreditu-erakundeen baliabide propioak sendotzeko eraturako funtza. Bideragarritasuna lortzeko laguntza eskatzen duten erakundeekin erabiltzen da.

- es Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria; FROB

17

Banku Berregituraketatik datozen Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea (4)

Sin. SAREB (4)

Banku-berregituraketan nazionalizatutako edo diru-laguntzak jasotako erakundeetatik eskuratzen diren aktiboak (bai higiezinak, bai finantzarioak) kudeatzeaz eta saltzeaz arduratzen den sozietate anonimoa.

- es Sociedad de Gestión de Activos procedentes de la Reestructuración Bancaria; SAREB

banku-biramendu

Ik. banku-igorpen

18

banku-fundazio (4)

- es fundación bancaria

19

banku-helbideratze (4)

Bezeroak kreditu-erakundeari baimena ematea bere kargura jaulkitako ordainagiriak bere kontutik ordain ditzan.

es domiciliación bancaria

fr domiciliation bancaire

en banking domiciliation

20

banku-igorpen (4)

Sin. banku-biramendu (4)

Transakzio bat ordaintzeko edo kitatzeko erabiltzen den merkataritzatresna, bankuak jaulkitako banku-txeke baten bidez pertsona batek beste bati diru-kopuru bat bidaltzean datzana.

es giro bancario

fr virement bancaire

en bank transfer

21

banku-txeke (4)

es cheque bancario

fr chèque de banque; chèque bancaire

en bank cheque

baterako kontu

Ik. kontu mankomunatu

biramendu

Ik. transferentzia

biramendu-agindu

Ik. transferentzia-agindu

22

diru-ateratze (4)

Titularrak kontu korrontean edo libretan ezarritako dirua berreskuratzea.

es reintegro; reintegro de efectivo

fr prélèvement; retrait

en drawing; withdrawal

23

diru-sartze (4)

es ingreso de efectivo; ingreso de dinero

fr dépôt de l'argent; revenu monétaire

en cash income; money income

24

edukitzaile (4)

Kanbio-letra edo beste efektu endosagarri bat duen pertsona: bera da efektua kobratzeko eskubidea duena.

es tenedor

fr détenteur

en holder

25

endosatzaile (4)

es endosante

fr endosseur

en endorser

26

eperako gordailu (4)

Titularrak hasieran zehaztutako epe baterako mantentzen duen gordailua. Epe horretan funtsak ezin daitezke erabili, tarte horretan sortutako interesen zati baten zigorra ordaintzen ez bada behintzat. Edozein kasutan, zigorrak ezin du kapitalaren murrizketa eragin.

es depósito a plazo

fr dépôt à terme

en time deposit; term deposit

27

erabilgarritasun-komisio (4)

Kreditu-polizan dirua mugaraino bezeroaren eskura, nahiz eta ez erabili, mantentzeagatik kobratzen den komisioa. Hau da, erabili gabeko saldoaren gaineko ehuneko.

es comisión de disponibilidad

fr commission de disponibilité

en availability commission

28

eramaile (4)

Izendunak ez diren tituluen –hau da, erakutsi eta balioa edo prestazioa eskatzen duenari ordaindu beharreko tituluen– edukitzailea.

- es** portador
- fr** porteur
- en** bearer

29

eramaile-efektu (4)

Onuraduna zehaztu gabeko kanbio-letra edo txekea; kobratu behar den lekuan efektua aurkezten duenak kobratzen du.

- es** efecto al portador
- fr** effet au porteur; effet payable au porteur
- en** bearer bill; bill payable to bearer

30

eramaile-txeke (4)

Onuradunaren izenaren lekuan “Eramaileri” jartzen duen txekea. Edozein eramailek kobra dezake, hau da, txekea kreditu-erakundera eramaten duen edonork.

- es** cheque al portador
- fr** chèque au porteur
- en** bearer cheque

31

ezarle (4)

Gordailuzain bati dirua gordailu gisa ematen dion pertsona fisiko edo juridikoa.

- es** impositor

32

funtsik gabeko txeke (4)

Sin. zorpeko txeke (4); hornidurarik gabeko txeke (4)
Kontuan ordainketari erantzuteko adina diru eduki gabe jaulkitako txekea. Hirugarren bati iruzur egiteko asmoarekin jaulkiz gero, delitutzat jotzen da.

- es** cheque sin fondos; cheque sin provisión de fondos; cheque al descubierto
- fr** chèque sans provision
- en** IF check; not-sufficient-funds check; uncovered cheque

33

Gainbegiratzeko Mekanismo Bakarra (4)

- es** Mecanismo Único de Supervisión
- fr** Mécanisme de Surveillance Unique
- en** Single Supervisory Mechanism

34

gordailu (4)

Gordailugile batek gordailuzain bati zaintzan uzten dion dirua. Gordailua zaindu eta, gordailugileak eskatutakoan edo epea amaitutakoan, itzultzeko betebeharra du gordailuzainak.

- es** depósito
- fr** dépôt
- en** deposit

35

gordailu-kontu (4)

- es** cuenta de depósito
- fr** compte de dépôt
- en** deposit account

36

gordailu-ziurtagiri (4)

Bankuak epe finkorako gordailu baten gainean jaulkitzen duen titulua; agindurakoa da, eta muga-eguna heldu bitartean endosatu edo bestela negoziatu daiteke.

es certificado de depósito

fr certificat de dépôt

en certificate of deposit

37

Gordailuak Bermatzeko Funtza (4)

Bezeroen gordailuak ziurtatzeko sortutako mekanismoa. Kreditu-erakunde hartzekodunen konkurtsoan sartzen bada edota bere ordainketa zein obligazioei aurre egitea eragozten dion arazoren bat badu, gordailugileek edo inbertitzaileek beren dirua hein handi batean berreskuratzeko bidea ematen du.

es Fondo de Garantía de Depósitos

fr Fonds de garantie des dépôts

en Deposit Guarantee Fund

38

gordailugile (4)

Gordailu bat egiten duen pertsona.

es depositante

fr déposant

en depositor

39

gordailuzain (4)

Gordailugile baten eskutik dirua gordailu gisa hartu duen pertsona fisiko edo juridikoa.

es depositario

fr dépositaire

en depository

40

hasierako saldo (4)

es saldo inicial

fr solde initial

en initial balance

hornidurarik gabeko txeke

Ik. funtsik gabeko txeke

41

Inbertsioak Bermatzeko Funtza (4)

es Fondo de Garantía de Inversiones; FOGAIN

42

intsuldaketa (4)

Banku-kontu batetik beste batera dirua pasatzea, bi kontuak banku berekoak eta, gehienetan, titular berarenek direnean.

es traspaso

43

irekiera-komisio (4)

Edozein finantza-produktu kontratatzerakoan ordaindu beharreko hasierako gastua.

es comisión de apertura

fr commission d'ouverture

en origination fee

kargatu

Ik. zordundu

kargu

Ik. zordunketa

44

kontu blokeatu (4)

Epailearen aginduz edo kreditu-erakundearen erabakiz saldoa erabiltzeko murriztapenak dituen kontua. Askotariko arrazoiengatik izan daiteke: epai bat betetzeko, titularra hil delako, dibisa-eragiketa batengatik, zorrei erantzuteko eta abar.

es cuenta bloqueada

fr compte bloqué

en blocked account; frozen account

45

kontu indibidual (4)

Sin. kontu pertsonal (4)

Titular bakarra duen kontua.

- es** cuenta individual; cuenta personal
- fr** compte individuel; compte personnel
- en** individual account; personal account

46

kontu lotu (4)

Kreditu-erakundeak eskainitako produktu edo zerbitzu bati (esate baterako, kreditu-txartel bati) esleitutako kontua. Kontu horretan zordundu eta abonatu dira produktu edo zerbitzu hura erabiltzetik sortzen diren mugimenduak.

- es** cuenta asociada; cuenta vinculada
- fr** compte associé
- en** associated account

47

kontu mankomunatu (4)

Sin. baterako kontu (4)

Bi pertsona edo gehiagoren izenean dagoen kontua, dirua ateratzeko eta bestelako zordunketak egiteko bi titular edo gehiagoren sinadura eskatzen duena.

- es** cuenta mancomunada; cuenta conjunta
- fr** compte indivis; compte commun
- en** undivided account

48

kontu onuradun (4)

Banku-transferentzia baten helburuko kontua, hau da, abonua egingo zaiona.

- es** cuenta beneficiaria
- fr** compte bénéficiaire
- en** beneficiary account

kontu pertsonal

Ik. kontu indibidual

49

kontu solidario (4)

Bi pertsona edo gehiagoren izenean dagoen kontua, eragiketeta normalak egiteko titular baten sinadura aski duena.

- es** cuenta indistinta; cuenta solidaria
- fr** compte joint
- en** joint account

50

kontu-laburpen (4)

Kontu batean denbora-bitarte batean egindako eragiketak eta bitarte horren amaierako saldoa jasotzen dituen dokumentua.

- es** extracto de cuenta
- fr** relevé de compte; extrait de compte
- en** statement of account

kreditu

Ik. abonua

51

kreditu-kontu korronte (4)

Bezeroari aurretiaz ezarritako muga baterainoko finantzaketa lortzeko aukera ematen dion kontu-mota. Kreditu-kontu korronteetan, ohikoa izaten da fede-emaile publiko baten esku-hartzea. Gainera, kasu gehienetan, poliza batean formalizatzen dira; izan ere, kontu korronteak formalizatzeke tresnarik egokienak dira polizak, esku-hartze prozeduraren erraztasunari eta kostuei esker.

- es** cuenta de crédito; cuenta corriente de crédito
- fr** compte à découvert autorisé
- en** credit account

52

kutxazain automatiko (4)

Kreditu-erakundeek bezeroen esku jartzten duten terminala; bezeroek ohiko banku-eragiketak egin ditzakete bertan.

- es cajero automático
- fr guichet automatique de banque
- en automated teller machine

53

leihatilako txeke (4)

Bezeroak txekerik aldean ez daramanean eta bere kontutik dirua ateratzeko txeke bat behar duenean, kreditu-erakundeak bezeroari ematen dion txekea.

- es cheque de ventanilla
- fr chèque de guichet; chèque de caisse; chèque omnibus
- en counter cheque

54

libreta eguneratze (4)

- es actualización de libreta
- fr actualisation du livret bancaire
- en savings book updating

55

mantentze-gastuak (4)

Kreditu-erakundeak kontua irekita edukitzeagatik bezeroari kobratzen zaion zenbatekoa.

- es gastos de mantenimiento
- fr frais de tenue de compte
- en maintenance charges

56

ordaintzeko modu (4)

- es modalidad de pago
- fr modalit  de paiement
- en method of payment; way of payment

57

pentsio-funts (4)

- es fondo de pensiones
- fr fonds de retraite; fonds de pensions
- en pension fund

58

pentsio-plan (4)

Pertsona batek etorkizunean erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik edo heriotzagatik jasoko dituen errentak edo kapitalak eta horretarako egin beharko dituen ekarpenak definitzen dituen kontratua. Pentsio-planen finantzaketa, estaldura eta efektibotasuna pentsio-funtsetan integratzen dira.

- es plan de pensiones
- fr r gime de retraite; plan de pension
- en pension plan

59

saldo (4)

Kontu baten zorraren aldearen eta hartzekoaren aldearen arteko diferentzia.

- es saldo
- fr solde
- en balance

60

saldo erabilgarri (4)

- es saldo disponible
- fr solde disponible
- en available balance

61

saldo hartzekodun (4)

Abonuak zordunketak baino handiagoak dituen kontu baten saldoa.

- es saldo acreedor
- fr solde cr diteur
- en credit balance

62

saldo zordun (4)

Zordunketak abonauak baino handiagoak dituen kontu baten saldoa.

es saldo deudor

fr solde débiteur

en debit balance

63

saldo-eskaera (4)

es petición de saldo

fr demande de solde

en balance request

64

saldo-kontsulta (4)

es consulta de saldo

fr consultation de solde;
consultation du solde du compte

en balance enquiry; balance inquiry

SAREB

Ik. Banku Berregituraketatik datozen Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea

65

sinadura baimendu (4)

Kontu korronte baten titularrak kontu horretako dirua erabiltzeko baimendu duen pertsonaren sinadura.

es firma autorizada

fr signature autorisée

en authorized signature

66

sinadura digital (4)

Dokumentu elektronikoko baten sinatzailea identifikatzeko prozedura, algoritmoetan oinarritua.

es firma digital

fr signature numérique

en digital signature

67

transferentzia (4)

Sin. biramendu (3)

Banku-kontu batetik beste batera dirua pasatzea. Bi kontuak titular berarenak edo desberdinenak izan daitezke eta kreditu-erakunde berekoak edo desberdinetakoak.

es transferencia

fr virement

en transfer

68

transferentzia-agindu (4)

Sin. biramendu-agindu (3)

Bezero batek kreditu-erakundeari bere kontuan zenbateko bat zorduntzeko eta beste kontu batean abonatzeko ematen dion agindua. Beste kontu hori bezero berarena edo hirugarren batena izan daiteke.

es orden de transferencia

fr ordre de virement

en transfer order; order of transfer

69

txeke (4)

Kontu baten titularrak kreditu-erakundeari agindua emateko agiria; kreditu-erakunde horretan duen diruaren zati bat edo guztia titularrari berari edo hirugarren bati emateko agintzen dio agiri horren bitartez.

es cheque

fr chèque

en cheque; check

70

txeke adostu (4)

Kreditu-erakundearen adostasuna duen txekea. Kreditu-erakundeak ziurtatzen du txekearen jaulkitzaileak baduela nahikoa diru kontuan eta txekea ordaintzeko behar den dirua atxikita geratuko dela ordainketa egin arte.

- es** cheque conformado; cheque registrado; cheque confirmado
- fr** chèque visé; chèque certifié
- en** certified cheque

71

txeke bat kobratu (4)

- es** hacer efectivo un cheque
- fr** encaisser un chèque
- en** cash a cheque

72

txeke gurutzatu (4)

Aurrealdean eta diagonalean jaulkitzaileak edo edukitzaileak marraztutako bi marra paralelo dauzkan txekea. Bi marra horien artean kreditu-erakunde baten izena idazten bada, erakunde horretan bakarrik kobra daiteke txekea; bestela, bi marren artean "eta konpainia" jartzen bada, edozein kreditu-erakundetan kobra daiteke. Baina, beti, banku-kontu batean abonatuz kobratu behar da, inoiz ere ezin da eskudirutan kobratu.

- es** cheque cruzado
- fr** chèque barré
- en** crossed cheque

73

txeke izendun (4)

Onuradunaren izena zehazten duen txekea; pertsona horrek bakarrik kobra dezake.

- es** cheque nominativo
- fr** chèque nominatif
- en** payself cheque

74

txeke ordaindugabe (4)

Onuradunak kobratzeko aurkeztu eta kreditu-erakundeak ordainketa ukatutako txekea.

- es** cheque impagado
- fr** chèque impayé
- en** dishonoured cheque

75

zordundu (4)

Sin. kargatu (4)

Kontu baten zorraren aldean idazpena egin.

- es** adeudar; cargar; debitar
- fr** débiter; charger; porter au débit
- en** charge; debit

76

zordunketa (4)

Sin. kargu (4)

Kontu baten zorraren aldean egindako idazpena.

- es** adeudo; cargo; débito
- fr** débit
- en** charge; debit

77

zordunketa-kontu (4)

- es** cuenta de adeudo
- fr** compte à débiter
- en** debit account

78

zorpeko saldo (4)

- es** saldo en descubierto
- fr** solde à découvert
- en** overdrawn balance

zorpeko txeke

Ik. funtsik gabeko txeke

2. FINANTZAKETA

79

abal (4)

Igorpen-hartzailea, igorlea edo endosatzailea ez den hirugarren batek kanbio-letra edo kreditu baten ordainketa bermatzeko sinatutako agiria.

es aval**fr** aval**en** guarantee

80

abal-emaile (4)

Abala eman duen pertsona.

es avalista; avalador**fr** avaliste; donneur d'aval; avaliseur**en** guarantor

81

abaldun (4)

Abala jaso duen pertsona.

es avalado**fr** avalisé**en** guaranteed

82

amortizazio aurreratu (4)

Muga-eguna iritsi aurretik mailegua itzultzea.

es amortización anticipada**fr** amortissement anticipé**en** advance amortization**amortizazio finantzario**

Ik. finantza-amortizazio

83

amortizazio-kuota (4)

Kreditu-erakundeari mailegua itzultzeko ordaintzen zaion zenbateko osotik kapitala amortizatzeko ematen den zatia.

es cuota de amortización**fr** montant d'amortissement**en** amortization amount

84

amortizazio-taula (4)

Zorra itzultzeko amortizazio-plana zehazten duen taula. Denboraldi bakoitzerako adierazten du: denboraldi-hasieran itzuli gabe dagoen kapitala; denboraldian zehar ordainduko den zenbatekoa, interesak eta zorraren amortizazioa bereizita; eta ordainketa egin ondoren ordaintzeko geratuko den kapitala.

es cuadro de amortización**fr** tableau d'amortissement; tableau de remboursement**en** amortization table

85

arrisku-analisi (4)**es** análisis de riesgo**fr** analyse du risques**en** risk analysis

86

arrisku-analista (4)**es** analista de riesgos**fr** analyste du risque**en** risk analyst

87

banku-abal (4)

Bankuak emandako abala.

es aval bancario**fr** aval bancaire**en** bank guarantee

88

berandutze-interes (4)

Zorra berandu ordaintzeagatik ordaintzen den interes gehigarria. Zorra ordaintzeko ezarrita zegoen egunetik zorra ordaintzen den egunera arte igarotako egunak kontatzen dira, eta interes-tasa normala baino handiagoa aplikatu ohi da.

es interés moratorio; interés de demora

fr intérêt moratoire; intérêt de retard

en interest on arrears; interest on overdue payments

89

bermatzaile (4)

Zor bat ordainduko dela edo betebeharrat beteko dela ziurtatzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.

es garante

fr garant

en guarantor; warrantor

90

berme (4)

Sin. *garantia (4)*

es garantía

fr garantie

en guarantee

91

berme erreal (4)

Sin. *garantia erreal (4)*

Betebeharrat beteko dela ziurtatzeko, ondasun baten edo ondasun-multzo baten gainean ezartzen den bermea.

es garantía real

fr garantie réelle

en real guarantee

92

berme pertsonal (4)

Sin. *garantia pertsonal (4)*

Bermatzailearen ondasun pertsonalek eratutako bermea.

es garantía personal

fr garantie personnelle

en personal guarantee

93

berme solidario (4)

Sin. *garantia solidario (4)*

es garantía solidaria

fr garantie solidaire

en several guarantee

94

deskontu-lerro (4)

es línea de descuento

fr ligne d'escompte

en discount line; line of discount

95

deskontu-tasa (4)

Merkataritzako efektuen deskontuan kreditu-erakundeak kobratzen duen interes.

es tipo de descuento; tasa de descuento

fr taux d'escompte

en discount rate

96

dibisatako mailegu (4)

Dibisa batean eskatutako mailegua.

Titularrak bere diru nazionala ez den beste diru batean eskatzen du kapitala, eta amortizazio-terminoak eragiketaren dibisan ordaindu behar dira.

es préstamo en divisas

fr prêt en monnaie étrangère; prêt en devises

en currency loan

97

diru-itzultze (4)

Lehenago ordaindu den zenbateko bat ordaintzaileari itzultzea.

es reembolso

fr remboursement

en reimbursement

98

dokumentu-kreditu (4)

Banku batek salgai-hartzaileari (inportatzailea izaten da normalean) ematen dion epe laburreko kreditua. Bankuak bere gain hartzen du saltzaileari (esportatzailea izaten da normalean) ordaintzeko konpromisoa, salgaiak entregatu direla frogatzen duten dokumentuak jasotzen dituenen. Era honetan, bankuak ordainketa ziurtatzen dio saltzaileari.

es crédito documentario

fr crédit documentaire

en documentary credit

99

dokumentu-kreditua irekitzeko eskaera (4)

es solicitud de apertura de crédito documentario

fr demande de crédit documentaire

en application for documentary credit opening

100

efektu (4)

Sin. merkataritzako efektu (4)

Dokumentu negoziagarria, zenbateko jakin bateko kreditu baten existentzia frogatzen duena eta berehala edo epe laburrera ordaintzekoa. Adibidez, kanbio-letra edo txekea.

es efecto comercial; efecto mercantil

fr effet commercial

en commercial bill; trade bill

101

efektu deskontatu (4)

es efecto descontado

fr effet escompté

en discounted note; bill discounted

102

efektu erreklamatu (4)

Kobratzeko laga ondoren, muga-eguna iritsi aurretik, lagatzaileak kreditu-erakundeari itzultzeko eskatzen dion efektua. Muga-eguna edo zenbatekoa aldatu nahi delako edo efektua deuseztatzeko egin ohi da.

es efecto reclamado

fr effet réclamé

103

efektu itzuli (4)

Muga-eguna iritsi eta kobratzeko aurkeztu denean ordainketa ukatu eta aurkezleari itzuli zaion efektua.

es efecto devuelto

fr effet refusé; retourné pour défaut de paiement

en returned bill

104

efektu ordaindugabe (4)

Muga-eguna iritsi eta kobratzeko aurkeztu denean ordaindu gabe geratu den efektua.

es efecto impagado

fr effet impayé

en unpaid bill

105

efektuen zorro (4)

Kreditu-erakunde baten eskuetan dauden merkataritza- edo finantza-efektuen multzoa.

es cartera de efectos

fr portefeuille d'effets

en bill portfolio

106

endosagarri (4)

es endosable
fr endossable
en endorsable

107

endosu (4)

Merkataritzako efektu baten edukitzaileak efektuaren jabetza hirugarren bati transmititzea, efektuaren atzealdean adierazpen formal a egin eta sinatuz.

es endoso
fr endossement; endos
en endorsement

108

epe laburreko kreditu (4)

Urtebetetik beherako eperako emandako kreditua.

es crédito a corto plazo
fr crédit à court terme
en short-term credit

109

epe laburreko mailegu (4)

Urtebetetik beherako eperako emandako mailegua.

es préstamo a corto plazo
fr prêt à court terme
en short-term loan; short loan

110

epe luzeko kreditu (4)

Urtebetetik gorako eperako emandako kreditua.

es crédito a largo plazo
fr crédit à long terme
en long-term credit

111

epe luzeko mailegu (4)

Urtebetetik gorako eperako emandako mailegua.

es préstamo a largo plazo
fr prêt à long terme
en long-term loan

112

eskaintza lotesle (4)

Hipoteka-mailegua eskatzen zaionean kreditu-erakundeak bezeroari eman behar dion dokumentu atzeraezina, maileguaren baldintza guztiak zehazten dituen a. Gutxienez, hipoteka sinatu baino hamar egun baliiodun lehenago eman behar du eskaintza kreditu-erakundeak.

es oferta vinculante
fr offre irrévocable
en binding offer

113

Espainiako Bankuaren oinarritzko interes (4)

Espainiako Bankuak ezartzen duen interes-tasa; erreferentzia moduan erabiltzen dute Espainiako kreditu-erakunde guztiak, ematen dituzten kreditu eta maileguen kostua kalkulatzeko.

es interés básico del Banco de España

114

fidantzamendu-kontratu (4)

Pertsona batek beste baten betebeharrat bermatzeko hartzen duen konpromisoa; hau da, bigarren horrek betetzen ez badu berak beteko duela bermatzen du.

es contrato de afianzamiento
fr contrat de cautionnement
en agreement for collateral security

115

fidantzatu (4)

Fidantza bidez bermatu.

es afianzar
fr garantir par un cautionnement; cautionner
en post a bond; bond

116

finantza-amortizazio (4)

Sin. amortizazio finantzario (4)
Hartutako mailegua edo bestelako zor bat epeka itzultzea. Epea amaitzean ordainketa bakarra egitea ere adostu daiteke.

es amortización financiera
fr amortissement financier
en finance amortization

117

finantzaketa-kontratu (4)

es contrato de financiación
fr contrat de financement
en finance contract

118

finantzatu (4)

Proiektu bat, negozio bat edo jarduera bat aurrera eramateko behar diren baliabide finantzarioak eskuratu.

es financiar
fr financer
en finance

garantia

Ik. berme

garantia erreal

Ik. berme erreal

garantia pertsonal

Ik. berme pertsonal

garantia solidario

Ik. berme solidario

119

hileko kuota (4)

Mailegu bat itzultzeko hilero ordaindu behar den zenbatekoa.

es cuota mensual
fr annuité mensuelle; mensualité; montant mensuel
en monthly amount

120

hipoteka-berme (4)

Sin. hipoteka-garantia (4)
Ondasun baten gainean ezarritako berme erreal. Ondasun higiezinak izaten dira normalean, eta zorra ordaintzeko betebeharrari lotuta geratzen dira.

es garantía hipotecaria
fr garantie hypothécaire
en mortgage security

121

hipoteka-bonu (4)

Kreditu-erakunde batek berak emandako hipoteka-mailegu zehatz batzuen bermearekin jaulkitako aktibo finantzarioa edo errenta finkoko titulua.

es bono hipotecario
fr obligation hypothécaire
en mortgage bond

hipoteka-garantia

Ik. hipoteka-berme

122

hipoteka-hartzekodun (4)

Hartzekoa hipoteka bidez bermatua duen hartzekoduna.

es acreedor hipotecario
fr créancier hypothécaire
en mortgage creditor; hypothecary creditor

123

hipoteka-kreditu (4)

es crédito hipotecario
fr crédit hypothécaire
en mortgage credit

124

hipoteka-mailegu (4)

Ondasun higiezin baten balioaren bermea duen mailegua. Mailegu-hartzaileak ordaintzen ez badu, mailegu-emailea egiten da ondasun hipotekatuaren jabe.

- es** préstamo con garantía hipotecaria; préstamo hipotecario
- fr** prêt hypothécaire
- en** mortgage loan

125

hipoteka-partaidetza (4)

Kreditu-erakunde batek berak emandako hipoteka-mailegu bakar baten bermearekin jaulkitako aktibo finantzarioa edo errenta finkoko titulua.

- es** participación hipotecaria
- fr** participation hypothécaire
- en** mortgage participation

126

hipoteka-zedula (4)

Kreditu-erakunde batek berak emandako hipoteka-maileguen bermearekin jaulkitako aktibo finantzarioa edo errenta finkoko titulua.

- es** cédula hipotecaria
- fr** cédule hypothécaire
- en** mortgage note

127

interes aldakor (4)

- es** interés variable
- fr** intérêt variable
- en** variable interest

128

interes finko (4)

- es** interés fijo
- fr** intérêt fixe
- en** fixed interest

129

interes-hobari (4)

Estatuak kreditu-erakunde bati ematen dion laguntza; kreditu-erakunde horrek ematen dituen maileguen interes-tasa murriztea da helburua.

- es** bonificación de interés
- fr** bonification d'intérêt
- en** interest rebate; interest rate subsidy; interest subsidy

130

kanbio-letra (4)

Merkataritzako efektu-mota: igorleak igorpen-hartzaileari agintzen dio zenbateko jakin bat ordain diezaiola hirugarren bati muga-egun jakin batean. Igorpen-hartzaileak kanbio-letra sinatzen duenean, ordaintzeko konpromisoa hartzen du; betebeharrak bereganatzen du.

- es** letra de cambio
- fr** lettre de change
- en** bill of exchange; draft

131

kanbio-letra bat deskontatu (4)

Kreditu-erakundeak bezeroari letra baten zenbatekoa ordaindu muga-eguna iritsi aurretik. Komisioa kobratu ohi du.

- es** descontar una letra
- fr** escompter une lettre de change
- en** discount a bill; discount a bill of exchange

132

kanbio-letra onartu (4)

Kanbio-letraren igorpen-hartzaileak ontzat emandako letra; letran bertan sinatzen du, muga-egunean ordainduko duela ziurtatzeko.

es letra aceptada; letra de cambio aceptada

fr traite acceptée; lettre de change acceptée

en accepted bill; accepted draft

133

kontsumorako kreditu (4)

Kreditu-erakunde batek partikular bati kontsumoko ondasunak erosteko ematen dion kreditua.

es crédito al consumo

fr crédit à la consommation; crédit au consommateur

en consumer credit

134

kreditu (4)

Pertsona fisiko edo juridiko batek beste baten esku jarritako diru-kopurua; diru-kopuru horrek muga bat izan ohi du, baina bezeroak ez du hasieran osorik eskuratzen; uneko beharren araberako diru-kopuruak jasotzen ditu aldiro, kreditu-txartel edo kontu bat erabiliz. Eskuratzen dituen kopuruen araberako interesak baino ez ditu ordaintzen. Dirua itzuli ahala, beste diru-kopuru batzuk eskuratzeko aukera du, ezarritako muga gainditu gabe.

es crédito

fr crédit

en credit

135

kreditu berriztagarri (4)

Muga-eguna iristen alderdietako batek kreditu-kontratuaen amaiera iragarri ezean automatikoki berriztatzen den kreditua. Horrela, praktikan, etengabeko kreditua edukitzearen parekoa da.

es crédito renovable; crédito rotativo

fr crédit renouvelable; crédit rotatif; crédit revolving

en revolving credit; renewable credit

136

kreditu bidezko finantzaketa

(4)

es financiación crediticia

fr financement par crédit

en credit financing

137

kreditu pertsonal (4)

es crédito personal

fr crédit personnel

en personal credit

138

kreditu-arrisku (4)

Erakunde batek kreditua emateagatik bere gain hartzen duen arriskua: kreditu-hartzaileak zorra ez ordaintzea eta, ondorioz, dirua galtzea.

es riesgo crediticio; riesgo de crédito

fr risque de crédit

en credit risk

139

kreditu-lagapen (4)

Hartzekodun batek duen hartzekoaren zati bat edo hartzeko guztia hirugarren bati uztea.

es cesión de créditos

fr cession de créances

en assignment of receivables

140

kreditu-lerro (4)

Kreditu-erakunde batek bezero bati muga jakin baterainoko kreditua emateko egiten den kontratua. Kontratua indarrean dagoen epean, mailegu-hartzaileak zuzenean erabil dezake kreditua.

- es** línea de crédito
- fr** ligne de crédit
- en** credit line; line of credit

141

kreditu-muga (4)

Titularrak kreditu-txartel edo kreditu-kontu korrante batean gehienez erabil dezakeen zenbatekoa.

- es** límite de crédito
- fr** plafond de crédit; limite de crédit
- en** credit ceiling; credit limit

142

kreditua irekitze (4)

- es** apertura de crédito
- fr** ouverture de crédit
- en** opening of credit

143

letra gastudun (4)

Muga-eguna iritsitakoan ordaindu ezean notarioaren aurrean protestoa egitera behartzen duen letra. Protesto-gastuak igorpen-hartzaileak ordaindu behar ditu.

- es** letra con gastos
- fr** traite avec frais
- en** bill with expenses

144

mailegu (4)

Pertsona fisiko edo juridiko batek beste baten esku jarritako diru-kopurua; diru-kopuru hori finkoa da, batak besteari osorik ematen dio eragiketaren hasieran, eta gero azken horrek itzuli egin behar dio lehenari, adostutako interes eta guzti. Maileguaren amortizazioa kuota erregularren bitartez egiten da, aldez aurretik ezarritako epe baten barruan, eta interesak diru-kopuru osoaren gain kobratzen dira.

- es** préstamo
- fr** prêt
- en** loan

145

mailegu bahi-bermedun (4)

- es** préstamo con garantía prendaria
- fr** prêt gagé; prêt sur gage
- en** pledge loan; pledged loan

146

mailegu balore-bermedun (4)

- es** préstamo con garantía de valores
- fr** prêt sur titres; prêt sur valeurs
- en** loan on securities; loan on stock

147

mailegu indexatu (4)

Finantza-erakundeak maileguan aplikatuko duen interes-tasa indize zehatz baten eboluzioaren arabera duen mailegua. Mailegu-mota horiek badute ezaugarri nagusi bat: ezinezkoa da zordunak itzuli behar dituen kapitalak aurretik ezagutzea.

- es** préstamo indexado
- fr** prêt indexé
- en** indexed loan

148

mailegu pertsonal (4)

Partikular bati bere ondarearen bermearekin emandako mailegua. Mailegu-hartzaileak uneko eta etorkizuneko ondare guztiarekin erantzun behar du mailegua itzultzeko.

es préstamo personal; préstamo con garantía personal

fr prêt personnel

en personal loan; character loan

149

mailegu sindikatu (4)

Finantza-erakundeen talde bat eratuta ematen den mailegua. Elkarturik, mailegu-eragiketa bakar bat sinatzen dute erakundeek. Finantzaketa-mota honek finantzaketa-bolumen handiko eskaera egiteko aukera ematen die enpresei, eta finantza-erakundeei, berriz, sor daitekeen gehiegizko arrisku-kontzentrazioa saihesteko bidea ematen die.

es préstamo sindicado

fr prêt syndiqué

en syndicated loan

150

mailegu-hartzaile (4)

Mailegua jaso duen pertsona fisiko edo juridikoa.

es prestatario

fr emprunteur

en borrower

151

mailegu-zorro (4)

Kreditu-erakunde batek emanda dauzkan maileguen multzoa.

es cartera de préstamos

fr portefeuille de prêts

en loan portfolio

152

mailegua emate (4)

es concesión de un préstamo

fr attribution d'un prêt; octroi d'un prêt

en granting of a loan

153

maileguaren printzipal (4)

Maileguan eman edo hartutako zenbatekoa. Zenbateko horren zati baten amortizazioa ordaintzen du mailegu-hartzaileak ordainketa bakoitzean, interesekin batera.

es principal; principal del préstamo; capital del préstamo

fr capital du prêt; principal

en principal; principal amount

154

merkataritzako deskontu (4)

Kreditu-erakundeak eskaintzen duen zerbitzua, etorkizunean kobratzeko den zenbateko bat berehala kobratzeko aukera ematen duena. Bezeroari kobrantza aurreratzen zaio, eta, ordainetan, kreditu-erakundeak eragiketaren prezioa deskontatzen du.

es descuento comercial

fr remise commerciale

en commercial discount

merkataritzako efektu

Ik. efektu

155

negoziazio-gastuak (4)

es gastos de negociación

fr frais de négociation

en negotiation fee

156

nobazio (4)

Kontratu bat sinatu duten alderdiek edukiaren zati bat aldatzeko egiten duten akordioa. Hipoteka-maileguaren baldintzak aldatzeko egiten da, esate baterako.

es novación

fr novation

en novation

157

onarpen-komisio (4)

Kreditu-erakundeak kobratzen duen komisioa, kanbio-letraren edukitzaileak muga-egunean letraren balio nominala kobratuko duela ziurtatzeagatik bereganatzen duena.

es comisión de aceptación

fr commission d'acceptation

en acceptance commission;
acceptance fee

158

onartzaile (4)

Kanbio-letra onartzen duena.

es aceptante

fr accepteur; tiré

en acceptor

159

ondasun pignoratu (4)

Zordunak hartzekodunari zorraren ordaina bermatzeko utzitako ondasuna. Normalean, banku-maileguaren berme gisa utzitako balore higagarriak izaten dira.

es bien pignorado

fr bien nanti

en pledged asset

160

partaidetzako mailegu (4)

Interes-tasa bi elementuz osatua duen mailegua: bata enpresaren eboluzioaren mendekoa ez den zati finkoa da, kontratuan itundu daitekeena; bestea, berriz, enpresa-hartzailearen eboluzioaren arabera zati aldakorra.

es préstamo participativo

fr prêt participatif

en participatory loan

161

pignorazio (4)

Mailegu edo kreditu baten berme gisa hartzekodunari edo hirugarren bati baloreak edo merkataritzako efektuak gordailutan uztea.

es pignoración

fr gage

en pledge

162

protesto (4)

Notario-akta mota: kanbio-letra bat ordaintzeko eguna iritsita, eramailea kobratzen saiatu dela eta ez duela lortu jasotzen du.

es protesto

fr protêt

en protest

163

subrogazio (4)

Kontratuko alderdietako baten ordeztu beste pertsona fisiko edo juridiko bat jartzea, lehengoak zituen eskubide edo betebeharrak beste pertsona horrek bere gain hartzen dituela.

es subrogación

fr subrogation

en subrogation

164

subrogazio-komisio (4)

Hipoteka-maileguaren zorduna aldatzen denean sortzen diren gastuengatik kreditu-erakundeak kobratzen duen komisioa.

es comisión de subrogación
fr commission de subrogation
en subrogation fee

165

tasazio (4)

Ondasun jakin baten balioaren kalkulua. Adibidez, etxebizitzaren tasazio ofiziala egiten du aditu batek, hipoteka-mailegu bat eman aurretik etxebizitzaren benetako balioa ezagutzeko.

es tasación
fr évaluation
en appraisal; valuation

166

urteko kuota (4)

Zordunak, hartutako maileguaren ordainetan, urtero ordaindu behar duen diru-kopurua. Maileguaren zati bat itzultzeko eta interesak ordaintzeko erabiltzen da.

es anualidad; cuota anual
fr annuité
en annual installment; annuity

167

urteko kuota konstante (4)

es anualidad constante
fr annuité constante
en constant annuity

168

zatiketa-onura (4)

Zordun baten zor bat fidantzatzan dutenak bat baino gehiago direnean, bakoitzak berari dagokion zatiarengatik bakarrik erantzun behar izatea.

es beneficio de división
fr bénéfice de division
en benefit of division

169

zordun berankor (4)

Zorra ordaintzen atzeratzen den pertsona edo erakundea.

es deudor moroso
fr débiteur défaillant
en defaulting debtor

170

zorpeko-komisio (4)

Kreditu-erakundeak kontu korrontean zorpekoa edukitzeagatik kobratzen duen komisioa.

es comisión de descubierto
fr commission de découvert
en overdraft commission

171

zubi-kreditu (4)

Eragiketa bat egiteko zain dagoen bitartean (epe luzeko mailegu bat formalizatzea, esate baterako) finantza-erakundeak bezeroari ematen dion epe laburreko kreditua.

es crédito puente
fr crédit relais
en bridging credit

3. INBERTSIOA

172

agente (4)**es** agente**fr** agent**en** agent

173

agente lotu (4)

Inbertsio-enpresa bakar baten izenean eta haren erantzukizun oso eta baldintza gabearen pean jarduten duen agentea. Inbertsioak eta zerbitzu lagungarriak eskaintzen dizkie bezeroei eta bezerogaiei, bezeroek inbertsio-zerbitzuei edo finantza-tresnei buruz ematen dizkioten aginduak hartu eta transmititzen ditu, finantza-tresnak kokatzen ditu, eta bezeroei edo bezerogaiei finantza-tresna edo zerbitzu horiei buruzko aholkularitza eskaintzen die.

es agente vinculado**fr** agent lié**en** tied agent

174

akzio (4)

Sozietate anonimo baten kapitalaren zati bat adierazten duen titulu negoziagarria.

es acción**fr** action**en** share; stock

175

akzio-saski (4)

Enpresa bat baino gehiagoren akzioekin osatutako akzio-multzoa, sektore baten erakusgarria edo jaulki duen finantza-erakundeak arbitrarioki osatua.

es cesta de acciones**fr** panier d'actions**en** basket of shares

176

Altxorraren letra (4)

Espainiako Gobernuak deskontuarekin jaulkitako errenta finkoko balorea, epe laburrekoa (6 eta 18 hilabete artekoa). Eskuratze-prezioa letraren itzultze-balioa baino txikiagoa da, eta bi balioen arteko alde hori da inbertitzailearen irabazia.

es letra del Tesoro

177

amortizazio-prima (4)

Sin. diru-itzultzeagatiko prima (4)

Tituluari dagokion nominalaren gainetik muga-egunean titulu-jabeari entregatzen zaion zenbatekoa.

es prima de amortización; prima de reembolso**fr** prime de remboursement**en** redemption premium; premium on redemption; reimbursement premium**analista finantzario**

Ik. finantza-analista

178

arrisku-kapitaleko sozietate (4)

Sozietate anonimoa, enpresa txiki eta ertain berritzaileen kapital sozialean aldi baterako akziodun minoritario gisa parte hartzen duena.

es sociedad de capital riesgo**fr** société de capital-risque**en** venture capital company

179

arriskuak dibertsifikatze (4)

Inbertsio-zorroaren arriskua mugatzeko estrategia, mota desberdinetako tituluetan inbertitzean datzana.

es diversificación de riesgos; dispersión de riesgos

fr diversification du risque; répartition des risques

en distribution of risks; risk allocation; risk diversification

artekari

Ik. broker

180

aukera (4)

Etorkizuneko egun jakin batean aurrez itundutako prezioan aktibo bat erosteko edo saltzeko eskubidea.

es opción

fr option

en option

181

aurreikuspen-funts (4)

es fondo de previsión

fr fonds de prévoyance

en contingency fund

182

azpiko (4)

Kontratu edo produktu eratorrien objektua den aldagaia, hala nola interes-tasa, balore baten kotizazioa, salgai baten prezioa, truke-tasa edo burtsako indizea.

es subyacente

fr sous-jacent

en underlying

183

azpiko aktibo (4)

es activo subyacente

fr actif sous-jacent

en underlying asset

184

balore (4)

Titulu batean adierazten den eskubidea.

es valor

fr valeur

en security

185

balore higigarritako

inbertsio (4)

Sin. higigarritako inbertsio (4)

es inversión mobiliaria; inversión en valores mobiliarios

fr placement en valeurs mobilières; investissement en valeurs mobilières

en investment in securities

186

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala (4)

Nortasun juridiko propioa duen erakunde publikoa, Espainiako balore-merkatua gainbegiratzeko eta ikuskatzeko xedearekin sortua.

es Comisión Nacional del Mercado de Valores; CNMV

187

balore-burtsa (4)

Sin. burtsa (4)

Errenta aldakorreko eta errenta finkoko balore pribatu eta publikoak salerosten diren merkatua.

es bolsa; bolsa de valores

fr bourse; bourse de valeurs

